

Ibaiak gainez

Amaia Iturriotz Etxaniz



Ibaiak gainez

Amaia Iturriotz Etxaniz

Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketa

2020

1. saria

2020ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Amaia Iturriotz Etxaniz (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

“Hantxe ulertu nuen, azkeneko etxe hartan, Loirakoan,
behin harat-honat etengabeak amaitu zituenean,
familia haren arazoak bukatu zirenean,
orduantxe ohartu nintzen lehendabizikoz eromenaz argi eta garbi”.

Marguerite Duras. *Maitalea*.

Amazonas ibaia marroia iruditu zitzaidan. Handia espero nuen eta bazen, baina marroia espero nuen eta oso zen marroia. Taberna bateko barraren atzean irabazitako sosak ozeanoa zeharkatzeko aski arrazoï ziren garaia bizi genuen. Arropa larruzalera itsatsirik. Izterrak gurutzatu ezinda, likits. Hostel izendatutako leihorik gabeko egurrezko etxola bat, lokatza eta ibaia. Bero-sapa. Suge lodi batek bezala besarkatzen gintuen lepotik eta sabeletik. Ia ito. Sinestera iritsi ginen itomen hori zela larrurik ez jotzeko motiboa.

Ordulariak ere traba egiten zuen eskumuturrean. Izerdia eta marka eguzkiarena. Hala geldotu zen denbora guretzat. Hamaka bat egurrezko hormetatik zintzilik, ibaia parean. Inportanteena iluntzean galtza luzeak eta alkandora jantztea zen. Eltxoei aurpegia, lepoa eta eskuak eskaintzea soilik. Baina gertatu zenean galtza motzak neramatzan artean soinean.

Zeruari begira ari nintzen, garrasika entzuten ziren hegaztiak oihal hartan aurkitu nahian. Eguzkia hasia zen pixkanaka amore ematen eta, hala ere, ez neukan sexurako gogorik. Bi gizon iritsi ziren etxolaren alboko eremu lohitura. Ibaia kolorekoak biak, sekula itsasorik ikusi gabeak. Altuenak zikin zeukan ilea, gerrialderaino iristen zitzaion beltz. Horrela ibiltzeko hobe zuela moztea, pentsatu nuen. Aurpegia ez nion ikusi, baina imajina dezaket. Kokainak zulatua. Ibaiak zimurtua. Berandu eta motel orbaindutako nerabegaroko aknearen markak. Irribarre bat ere jarriko nioke, noizbehinkakoa, ahula baina benetakoa. Mahukarik gabeko kamiseta hori bat zeraman jantzita, bere neurrikoa izango zena hogeï kilo gehiago zeuzkan denboran. Galtza luzeak eltxoentzat eta plastikozko sandaliak askatu ezinda lokatzetatik.

Beste tipoaz ez dakit ezer. Baxuagoa zela eta ez zeukala luze ilea. Aktore nagusietako bat izanagatik, figurante moduan tratatzen du nire memoriak. Behin baino gehiagotan

gertatu izan zait hau eta izua da sentitzen dudana. Beldur naiz ahaztuko dudala alabaren usaina jaio zenean edo aitaren hitz egiteko manera, lehengoa, hitz egiten zekienekoa. Arrats hartan, ordea, ez nuen sentitu beldurrik batere. Hizketan ozen samar ari zirela, bai, antzeman nuen. Haserre zeudela ere iruditu zitzaidan. Oihu gutxi, dena den, eztabaida gordin baterako. Geroago gorputzak yoyo baten gisan mugitzen hasi ziren, askatu eta jaso, hurbildu eta atzera berriz. Harmonia osoz. Ukabilak urrun. Ez nintzen larritu, are, entretenituta nengoen leihotzat jo zitekeen egurrezko karratutik begira.

Eta orduantxe gerturatu zitzaidan orduko nire bikotea. Josu. Dutzatik uste dut zetorrela. Kolore biziak zeuzkala zeruak eta emateko buelta. Publizitatea, nonbait, hiru minutu eta bueltan naiz, esan nion eszenari. Objektiboari begira-begira jarri nintzen. Irribarre egin nuen, harreman hartan ezetz esateko neukan ezintasunetik. Klik. Segidako bi urteetan sare sozialetan horma-irudi gisa izango nuen argazkia atera zidan. Jendeak Amazonasen izan zen neska bidaiaria ikusiko zuen bitartean nik elipsi pisu hura gogoratuko nuen. Berriz zuzendu bainuen bista ibaiertzera, lokatsetara, eta han behean ez zen tximaluzearen arrastorik. Bestea zebilen galdurik, erle bat seinaleak egiten bezala, billarreko bola iskinka moduan. Norabide bat hartu, lau metro egin eta itzuli. Arnasestuka gizona.

Etxolara begiratu zuenean ez ninduen ikusi eta pozten naiz horregatik. Baina bai berak eta bai nik beste zerbait ikusi genuen etxolatik oso metro gutxira, erdi uretan. Kamiseta hori bat, erdi bustia. Korrika joan zen, makurtu egin zen eta eskuetan hartu zuen. Kamiseta bat, soinik gabea. Begiak gorritu zitzaizkion, edo nik hala irudikatzen dut gertatu zitzaiola. Oihuka hasi zen laguntza eske. Hegaztiek baino zarata handiagoa atera zuen, oihan bat atera zuen biriketarik. Hosteleko jabea azkar samar irten zen. Baita Josu eta haren objektiboa ere. Ni barrura sartu nintzen. Azenarioak mozteari ekin nion sukaldean. Tipula, yuka, oilaskoa. Lapikoa sutan jarri nuen eta mugikorrean musika. Manu Chao. Cuando llega ya se ha ido. Gozo zegoen afaria, baina nik bakarrik jan nuen. Ez omen zeukaten goserik besteek. Gizon bat desagertu zela kontatu zidaten. Lagun batekin zegoela eta, bat-batean, ez zegoela. Kideak ez omen zuen gertatutakoa ikusi. Ez zekitela ibaira eroria izango zen edo zer. Bazitekeela bere burua bota izana. Drogak eta. Bere kamiseta baino ez omen zuten aurkitu momentuz. Gorpuaren arrastorik ez. Normala, pentsatu nuen, ibaiaren kolorekoa zen-eta. Baina ez nuen esan. Ez nuen ezer esan.

Teresari Brasilen egona naizela esan diot. Garai hartan bikote nuenarekin urtebete eman nuela bidaiatzen. Oihanean bi asterako sartu ginela, baina lau hilabete joan zitzaizkigula konturatzerako. Ordurako jada gobernuak lurrak kentzen zizkiela jatorrizko herriei eta zuhaitzak botatzen zituela gupidagabe. Ez dela kontu berria

deforestazioarena, baina, baietz, arrazoi duela, ez dagoela eskubiderik. Arrazoa duenean lasaitu egiten da Teresa eta erlaxatu egiten zaizkio azala eta zimurrak. Orduantxe izaten da argizariari tira egiteko instant perfektua, ileak errazago erauzten dira. Min gutxiago egiten diot arrazoa daukanean, beraz; ez daukanean ere, batzuetan, eman egiten diot.

Bera ere joango litzatekeela noizbait. Ezagutuko lukeela Brasil. Han hasi da inauteriez, sambaz, hondartzez. Badakit, ordea, zuriz jantzitako gorputzak dauzkala buruan. Ez dit esango, baina hala da. Lukeelaka eta litzatekeelaka bizi da Teresa. Bere amets propioak ere ez ditu sinesten. Joan behar zuen Madrilerik ikastera, joan atzerrira au pair, egin behar zuen Santiagora bidea berak bakarrik, hasi behar zuen baratzean, saiatu behar zuen alu bat jaten, eraman behar zuen amona itsasoa ikustera hilurren, erditu behar zen hiru seme-alabaz edo lauz, izena eman behar zuen pilatesen, aurreko neguan laserra egin behar zuen besape eta iztaietan. Baina hemen dago, gora begira etzanda, eskuineko eskuaz kuleroaren ertza apartatzen didala. Inoiz ez da izan ile gutxiegi uztekoa, ez gehiegi ere, eta ni amorratu egiten naiz neurriarekin. Neronek trazatutako marra zuzenak amorratzen nau, hor, aluko ezpain handien periferian zuzen. Ohartzan bainaiz Teresa tentuz marratzen diodan ilezko hiruki horretan bizi dela, ez dela hortik irteten eta lekua duela bertan lasai etzateko. Bi seme dauzka, guapoak. Senarra litezkeen herri-mugimendu guztietan sartuta dago. Hiltzen denean omenaldi eder bat egingo diote. Jende asko joango da bere hiletara eta Teresari eutsi izanaren lana errekonozituko diote auresku batekin. Eustea ez zait iraultzailea iruditzen.

Niri nahi gabe hazten zaizkit zuhaitzak pubisean. Pagoak eta haien egonarrria. Eukaliptoak eta berehala sua. Zilborreraino erre nintzen behin. Internet bidez zetazko kamisoi bat eskatu nuenean izan zen. Ahizpak aholkatu zidan opari bat egiteko neure buruari. Eta etxera sartzen utzi nion banatzaileari. Bakarrik nengoen goiz hartan gure alaba miniatuazkoarekin. Esneak kamiseta guztiak bustitzen zizkidan. Sukaldean garbigailua aho-zabalik. Gogoan dut oso lurrekoa sentitzen nintzela, etengabe argitzen eta gautzen nintzen, ibaiak neuzkan lurpetik gora irteten, animaliak esna. Ainara lo zegoen. Kafe-makina sutan jarri nuen eta sukaldeko aulki batean jesarri zen bera. Ez zen itsusia ere. Oso gazterik hasia porroekin. Kopetako ileak gehiegi estaltzen zion aurpegia bere amaren ustez. Ni etxean sentiarazi ninduten haren begi-zuloek. Zorionak, esan zidan, haurragatik. Orduan konturatu nintzen ezagutzen ninduela, herri batean beti egoten garenez helduagoei begira. Nik ez nekien bere izenik. Ez nion galdetu, nahita. Hark ekarritako kaxa ireki nuen labana batekin. Egurrezko tresna bat geneukan sukaldean suen

ondoan propio labanentzat, diskretuki eskura izateko labanak, azenarioak baratzean sartuak bezala, bada egurretan. Kafea zerbitzatu nion. Kamisoia atera nuen kaxatik. Gaileta bat busti zuen kafetan eta begira-begira geratu zitzaidan nola biluzten nintzen, nola kentzen nuen pijama kamisoia janzteko. Gaileta irentsi zuen, apurrak geratu zitzaizkion hortzetan eta niri orban bat hasi zitzaidan hazten ezkerreko bularraren parean. Zutitu eta tirantea jaitsi zidan titiburua miazkatzeko. Mikatzegia, nonbait, kafe hutsa. Zuhaitz ni bihurtu nintzen orduan. Oinutsak sukaldeko baldosa hotzean, adarrak zabal, hostoak eguzkitarantz gora eta gora. Ezpainetan loreak. Logela eskaini nion. Aizkoraz tolestu nituen belaunak eta ohe gainera bota nuen neure burua, sabaian begiak. Ur-jauziak oparitu nizkion. Txoriak sartu zuloetatik. Eskuak apartatu nizkion alutik, erne, txarrantxazko hesola bat dago hemen. Sofistikazioz eta tentuz laztandu nuen goialdetik nire klitoria, eskuineko ezpainean minbera puntu bi. Hilabeteak ziren ez nituela horrela hezeten izarak. Orduan niri atera zitzaidan oihan bat barrutik eta Ainara bigarrenez jaio izan balitz bezala hasi zen negarrez. Itsatsita nuen gorputza urduritu egin zen, begirada galdua itzuli egin zitzaion mundura eta haurrari so geratu zen, haur bat munduari geratzen zaion bezala. Jarraitzeko esan nion. Begiratzeko niri. Zakila ukabilean bildu eta aluan sartu nuen. Min egin zidan zauriak. Piztia bat naiz batzuetan. Basatia zen haurraren oihua eta nirea biak batera entzutea, mutilaren begiak zuritzen. Odol pittin bat zaurian ur zuriarekin nahasten. Putreak, sugeak, tigreak eta pirañak. Ainara magalean hartu nuen, titiburuari heldu eta isildu egin zen. Mutila ohean etzanda geratu zen, hustuta. Gero izarak eta kamisoia garbigailuan sartu, eko programa martxan jarri eta atarira lagundu nion. Labana egurrezko zera horretan sartu nuen. Batzuetan txizak ihes egiten dit ordutik. Teresari ez. Edo hori esaten du. Baina badaezpada ere ez du doministikurik egiten alua depilatzen ari natzaionean. Zita atzeratzen du katarroarekin baldin badabil.

Zerbait arraroa antzeman dit. Joan eta etorri balebil bezala nire gogoan. Bi-hiru aldiz tiratu dut argizaria beranduegi. Ia hotz. Begirada Teresaren larruazalean galdua. Ez dut zerbait gertatzen zaidan galdetzerik nahi. Bere begietatik ihesi nabil eta hori ere antzeman dit. Erdibideko zerbait irudituko zitzaionez, ea Marta zer moduz dabilen galdetu dit. Betiko moduan, erantzun diot. Bere saltsan gustura. Erantzuna berbera litzateke herrian ingeles klaseak emanez eta arratsaldetan zeramika eginez pozik bizi den ahizpa bat banu, baina nirea ipar-poloan bizi da. Batzuetan, hemen nirekin iluntzean paseo bat emateko lagun ona litzatekeela gogoratzen dudanetan, orduan, amorrua sentitzen dut. Haserretu egiten naiz berarekin nire etxeko sukaldean eta erantzunik espero gabe galdetzen diot airera ea nola iritsi den haraino. Urrunago ezin da. Pittin bat gorago bukatzen da mundua. Artikoko itsas biologiaren magiaz hitz egiten dit. Doktoretza tesia hango, han urruneko, alga bati

buruz egin zuen, proteina bat edo ez dakit zer daukala ipar-poloko muturreko baldintzetan bizirauteko. Entzun egin nion orduan ere. Alga bat itsasoan. Galdetu niezaiokeen, baina ez nion galdetu eta oraindik urtetara ere ez diot galdetu bera nola egokitzen den. Nola baino, zergatik egokitzen den. Zergatik egokitzen den berak aukeratzeko dituen muturreko baldintzetara. Muturreko baldintza horiek zergatik probokatzeko dituen. Unibertitate, Biodibertsitate, ozeanoa erantzungo lidake, baina honezkero ez dit balio. Itzurungo hondartzara eramane beharko dut aurki, datorren batean, ikus dezan alga pila bat daudela bizirik hemen. Izterretan eta orkatilatan korapilatzen hasten zaizkigun momentua baliatuko dut galdetzeko ea zeri doan ihes, zer behar duen bueltatzeko. Berotze globala ere sustatuko nuke balioko balu ipar-polo osoa urtzeko, algak hiltzeko han eta izateko ahizpa hemen. Neurekoia naiz askotan, sentitzen dut.

Gabonez geroztik ez omen du ikusi nire ahizpa. Ea etortzen den bisitan edo honezkero ez. Ulertzekoa da, han ere bere bizitza izango du-eta. Bikoterik ba al dauka? Bizitza izatea zer den. Ba ez, Teresa. Nik dakidala, ez. Baina berandu baino lehen etorriko dela pentsatzen dut. Aita ospitalean daukagu eta, badakizu. Ez omen zekien ezer. Ez diot sinetsi, hala ere. Teresak dena baitaki. Badaki nor naizen ni. Zein manifestaziotara joan ohi nintzen gazteagotan eta nola ikasi dudan gero kamuflatzen jendarte homogeneo usteko honetan, baina zer pentsatzen dudan benetan depilazioaz. Zein egunkari irakurtzen dudan gosaldutik bitartean, noiz maitemindu nintzen azkenengoz eta norekin. Nor den nire aita eta nor nire ama. Noiztik bizi den gure aita alboko herriko zaharren egoitzan eta zergatik. Egunero sentitzen dela gure ama bakarrik arratsaldeko seiak aldera eta paseoan irteten dela Mirenekin. Eta aita ospitalean dagoenik ez omen zekien. Ja. Uste dut gorroto dudala pixka bat. Akaso jakingo du hori ere. Nik ez dakit. Berari hozka egiteko halako bulkada bat sentitzen ari naiz. Erdi-gezurretan ari delako edo gezurretan aritzeko arrazoia zein duen ez dakielako segur aski, ileak tente-tente dauzka justu orain. Beraz, tira nik argizariari. Teresak begiak itxi ditu fuerte eta plazer txiki bat sentitu dut mina igarri diodanean. Olio eman diot gero, baretzeko. Izan ere, maite ere maite baitut batzuetan, batzuetan eta gutxi, baina gorroto dudan baino gehiago maite dut nik uste. Auzo berak ikusi gaitu biok hazten edo beharbada nahastuta nago eta, berez-berez, Teresak ikusi nau hazten ni, jaio nintzenerako titiburu arrosetan ilar bana zeukanez. Bizilaguna dut. Dagoeneko ez naiz auzo horretan bizi, baina iraungitzen ez den izendapen bat da bizilagunarena, emaztearena edo erregearena ez bezala. Lagunaren eta ezezagunaren artean geratzen den leku hori da bizilaguna. Nola bizi elkarrengandik elkarren gertuko izan

gabe. Nola izan etengabe bestearen paisaiaren parte. Balizko balkoi bat marraztea goizero bestearen gosaritako begi-zuloen parean.

Aita. Gure aita zer moduz dagoen ere jakin nahi du. Nik ere bai. Nik ere jakin nahi dut hori. Amak esaten du hobera doala, medikuak hala esan omen dio. Medikua goizetan pasatzen da aitaren eta Angelen gelatik eta nik goizetan argizaritan izaten ditut eskuak, erleek moduan. Ardura sentitzen dut eta egonezina amaren bekainak irudikatzean medikuaren azalpenen aurrean. Analisisak ez dakit zer, plakak ez dakit nola. Beraz, amak ulertzen diona da hobera doala. Ez baitakit zergatik erabiltzen dituzten beste inoren hiztegietan ez dauden hitzak guk hilko den, biziko den, biziko bada nola biziko den besterik jakin nahi ez dugunean. Eta hori da nire zalantza. Hobera doan arren, hilko den. Hilko bada, nola hilko den. Minez ala ametsetan. Biziko bada bai-baitakit nola biziko den, aspaldi bizi denez irauteari emana. Gurpildun aulki batean, gorputza eskuinerantz okertuta, ezpain ertzetik ihes doakion listua noiz eta nork sikatuko axola ez zaiola, bakar-bakarrik arratsaldera arte, posible baita bakarrik egotea jende asko dagoen sala zuri batean. Arratsaldetan, Mirenekin geratu aurretik, ama bisitan joango zaio, eta amak ezin badu, ni. Aitaren masaileko azalari atximur egingo diogu, musu kopetan, eskutik heldu, eskua estutu, beste musu bat kopetan. Hemen gaude, aita, hemen zaude?

Eguerdian deitzen diot amari eta arratsaldean ospitalera igotzen naiz. Egunero topatzen dut estampa bera. Angel minez, biriketako minbiziak aldakan egiten dio min. Bihotzetik urrunago dagoela aldaka, dio. Nahiago duela aldakak ematea min birikek baino. Baina birikak jaten ari zaiona aldakara iritsi bazaio, berak ere badaki, gaitzak ez duela izango bihotzik batere. Angel, konpainia eskasa egiten dizu gure aitak. Hor etzanda, ohe-burua ezinbestean jasota beti, begiak eta ahoa zabalik baina arima itxita munduari. Hor etzanda, arnastu ezinda gelako pure usaina. Gatzik gabeko oilasko lehorrarena. Airerik sartzen ez barrura. Ura biriketan eta arrainak. Arrain laranjak biriketan. Ura oinetan eta handik gora. Galtzerdien marka orkatiletan, itsas izar baten zigilua hondarretan. Bihotza omen du ahul. Horregatik ura eta horregatik arrainak. Marinela balitz ere gure aita. Lehorreko gizona bera. Ur handitan larri. Eta alboan ama igeri, putz eta putz ari dena haizatu nahian itsasontziaren oihal zuria. Hilabeteak dira, ordea, irudikatzen dudala zuloz betea. Eta zuria da. Oihala.

Bada aita ez dago ondo, ez. Zintzo erantzun diot Teresari. Hirugarren aldia da aurten ospitaleratu dutena. Burua erabat galdua izatea gutxi balitz, orain, gainera, ito egiten da eta motzagoa da aldiro sendatzen denetik berriz gaixotzera arteko tartea. Bizitzaren

legea, Teresa. Amak kezkatzen nau ni gehiago. Oso triste jartzen da aita ospitaleratzen duten bakoitzean eta motzagoa da aldiro tristatzen denetik berriz tristatzera arteko tartea.

Aita zahar-etxean dagoenean lasai bizi da bera gabe, ez du beragan pentsatzen lokartu aurretik ohean, ez-eta egongelan daukan ezkontza-argazkiari hautsa kentzen dionean ere. Ospitalean, ordea, orduak eta orduak eman ahala bere aldean txanponak sartu behar zaizkion telebistari begira, ez du pantaila ikusten, fotogramaz fotograma bien bizitza errepasatuko balu bezala. Auzoaren gainaldeko zelaian etzanda joandako arratsaldeak gogoratzen ditu. Larrutan sutzuki egiten zuten garaia eta baimenik gabe larrua jo zion lehen aldia. Hasi eta bukatu ez zen haurdunaldi bat. Lanetik ekartzen zuen izerdi usaina. Nola besarkatzen zuen bizkarretik goxo gauetan. Udak Hendaian. Lehen haurra. Ni. Garbigailua, lapikoak, larunbateroko azoka, plantxa. Titiburuak minbera. Taberna. Afaria hoztuta sukaldeko mahaiaren gainean. Bigarren umea. Igandeak Urbanan. Hazten eta hazten bi neskatxa polit. Sukaldea. Beti taberna. Ohea. Maitasuna edo antzeko zerbait. Laurogeita bederatziko urtarrila. Martinen eta Rosaren hileta. Mina. Etxe giroko egunak. Alaben ileak besapeetan. Handitu ahala urruntzen biak. Aireportua. Marta joan zen eguna. Gabonak. Ainara jaio zenekoa. Pilota-partidak telebistan. Eta bukaeraren hasiera. Etxeko zapatilak hozkailuan. Giltzak atean. Izarak genu-usainez. Garbigailu bat egunean. Ezin aurkitu etxea. Ezin aurkitu izenak. Ezin aurkitu hitzak. Amorrua eta etsipena gero. Garbantzuak erreta eta sukaldea sutan. Aita isildu zen negua. Zahar-etxearen ondoko tabernako kafea eta han oparitzen duten gaileta.

Ama da deika. Justu bibotea kentzen ari natzaionean Teresari. Ile gehiago izaten du hor hilekoa joan zizaionetik. Barkatu, Teresa, momentu bat. Ama da. Egurrezko makilatxo bat dut eskuineko eskuan, bueltak ematen ari dena ontziko argizari beroari. Bestean mugikorra. Zer ama? Argizari beroa bezala itsatsi zaizkit bere hitzak azalean. Isiltasuna erori da lurrera eta Teresa istantean konturatu da pintzekin kendu beharko dituela ezpain ertzetako ileak etxean. Aita hil egingo da. Gaur ez bada, bihar. Bihar ez bada, etzi. Bat-batean presa dauka aitak eta ni ere presaka nabil. Ahizpari abisatu behar diot, garaiz iristen saiatu dadin hegaldi garesti batean. Ainarari eta bere aitari, ez bainaiz joango bazkaltzera eta akaso nahiko dute beraiek ere etorri. Barkatu, Teresa, joan beharra daukat. Aita da. Prakak jantzi ditu berak. Berokia jantzi dut nik. Erdia kobratu diot. Argiak itzali. Kristalezko atearen barrualdean kartel bat zintzilik. Itxita. Euria hasiko duen mehatxuka dabil zerua. Denok hartu dugu aterki bana alferrik. Aldapan daukat autoa. Abiarazterakoan gelditu egin zait. Esku-frenoa. Atera dut bigarreanean. Zebrabidea. Amona bat. Juanjo harategia ixten. Bi ume eskolatik. Zakur bat eta bere jabea. Hiriburura

doan autobusa geltokian geldi. Gasolindegia. Semaforoa gorri. Geldi. Ahizpaz gogoratu naiz. Ez diot abisatu ahizpari. Semaforoak jarraitzeko esan dit. Orduz orduko albiste zerbitzua irratian. Jaurlaritzak aurrekontuak onartu ditu. Langabezia bi puntu igo da Nafarroan. Emakume bat erail du bere bikotekide ohiak Bilbon eta bere buruaz beste egin du gero. Ipar Euskal Herriko bertsolari txapelketako finala jokatu da bihar. Euria dator asteburuan. Joder, ahizpa.

Marta? Klasean zaude, Marta? Gauza bat. Ospitalera noa. Amak deitu dit. Aita. Aita hiltzen ari da, Marta. Orain ari naiz iristen. Bai, gidatzen ari naiz. Gela individual batera pasa dute. Ez dakit. Egunak edo orduak. Etorriko zara? Marta? Isilune batekin erantzun dit. Hotz egiten du Norvegian. Mugikorra lurrera erori zaio. Jaso du. Dardarka ari den ahots bat da orain. Ez da doluzkoa dardara. Ez da malkozkoa. Beldurra entzuten ari naiz. Amorrua entzuten ari naiz. Haur bat entzuten ari naiz. Marta? Marta, ondo al zaude? Baietz. Baina ezetz. Ez dela etorriko. Euskal Herrian ere hotz egiten du gaur. Suabe esan dit, min gutxiago egin diezadan. Begietara begira baneuka bezala hasi zait hizketan, zerbait aitortzen ari denaren zintzotasunez. Abisatzeko mesedez hiltzen denean. Etorriko dela hiletara. Esateko amari hori, hiletara etorriko dela.

Aparkalekuan ni. Kotxeko motorra eta biok geldi. Ezin dut. Ez dut nahi. Pentsatu. Ulertu. Eskertuko nuke oraintxe euria. Ez du ari. Efortzen adina kosta zait autotik irteten. Ospitalea ipar-poloa baino hotzagoa da, baina bero egiten du barruan. Eskuan dut berokia. Autoan ahaztu dut aterkia. Hirugarren solairuko botoia sakatu dut igogailuan. Korridoreko azken gela da eskuineko aldean. Amaren indikazioak. Angel lehengo gelan egongo da. Gero pasako naiz agurtzera. Edo bihar. Hirurehun eta bi. Ama leihoaren aurrean topatu dut zutik. Zeruari begira, ez aitari. Eskertuko luke oraintxe euria. Ez du ari. Munduko ur guztia aitak dauka barruan. Arrain laranja gain, baleak, marrazoak eta algak. Petrolio-ontzi baten motorra pizten dela dirudi arnasten ahalegintzen den aldiro. Begiak itxita dabil ez dakit non igeri. Ama besarkatu dut lehenbizi. Estu heldu dit. Eta gertu gauden momentu hau aprobetxatuko dut amari esateko Martak esan didana. Suabe, min gutxiago egin diezaion. Ez duela hegaldirik hartuko oraingoan, baina etorriko dela hiletara.

Galerna espero nuen. Uholdeak. Ibaiak gainez. Baina ez. Ama ez da harritu. Ez da haserretu. Ez da mindu. Ulertu du. Onartu du. Sentitzen du. Eta ni eurtan hasi naiz. Arrainak eta algak itotzeko beste euri ari du orain gela honetan. Aita agurtzera etorri den honek ez baitaki eskutik heldu edo ez, maite duela esan edo ez hor itsasoan hiltzen ari den gizonari.